

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	18.962 biztanle
Zabalera:	2,25 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Iruña (barrutia-sekzioa: 02-001etik 02-002ra, 02-006tik 02-010era, 02-012tik 02-017ra eta 05-008tik 05-009ra)

2. Komunitatea eta osasuna

II. Zabalguneko eskualde oinarrizkoa Iruñeko udalerrian dago kokatua. Biztanleriaren piramideak erreboil itxurako biztanleria du, zeinean nagusi baitira 30etik 55 urte bitarteko adin taldeak. Gainera, biztanleria feminizatua ageri da 60 urtetik aurrera. Eskualde oinarrizko hau da jaiotza tasa handiena (%12,0), 14-19 urteko ama duten jaioberrien tasa txikiena (%2,4) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen portzentaje txikiena (%15,1) dituztenetarik.

II. Zabalgunekoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%2,2), diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%5,2), emakumezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%15,5) eta emakumezko (86,9 urte)

nahiz gizonezko (80,9 urte) jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez. Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%9,7) eta urteko kontrol erregistratua duten diabetiko eta hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%61,7 eta %57,7, hurrenez hurren).

Nafarroa2000 zonifikazioan II. Zabalguneko eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean baitago, aurrekoetz gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); 2. Urteko ugalkortasun-tasa berriazkoa (‰) 14-19 urteko ametan; 3. 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; 4. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; 5. Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia ardatzetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarrerren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia ardatza, 2015ean: 5.150 €); 6. ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; 7 eta 8. Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 9. 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; 10. Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; 11. Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); 12. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; 13. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; 14 eta 15. Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: 15OB antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 19,0 eta gizonezkoak 9,5); 16. Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score >= +2); 17. 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 6,2); 18. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; 19. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; 20 eta 21. Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.